

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2025eko errolda jendaurrean jartzea eta ordaintzeko moduan jartzea

Behin-behineko onespena eman zaio trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2025ko erroldari, eta jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunetz, interesa dutenek aztertu eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsitzen joko da, eta kobratzeko aldiari ekingo zaio.

2025eko martxoaren 1etik apirilaren 30era bitarteko egun baliodunetan (bi horiek barne) trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagozkion 2025eko ordainagiriak prest egongo dira borondatezko epean ordaintzeko.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek, ordainketa helbideratuta ez badute, Arraia-Maeztuko Udalak Maeztuko banku erakundearen duen kontuan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, epe horretan. Ordaindu aurretik, zergapekoek udal bulegoetan jaso beharko dituzte ordainagiriak, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Zergadunei gogorarazten zaie banku erakunde edo aurrezki kutxetan helbideratuta egin dezaketela ordainketa. Helbideratutako ordainagiriak banku erakundeetan kobratuko dira epe horretan.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboari ekingo zaio, hala xedatzen baitu Zergabilketarako Araudi Orokorrak, eta kobratu beharrekoari legez ezarritako erre-kargua ezarriko zaio eta, hala badagokio, berandutze interesak eta sortzen dituen kostuak ere bai.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Maeztu, 2025eko urtarrilaren 27a

Alkatea

ANA ASUNCIÓN FERNANDEZ DE MONJE ALZOLA